



Imprenta Fidel Morales - Ib. de Bilbao, 6 - Bilbao

**PHEDRO'ren
ALEGIAK**

III



**Etxebarria'tar Juan Anjel'ok
LATĒRATIK EUSKERATUTA**



PHEDRO'ren ALEGIAK

III

Etxebarria'tar Juan Anjel'ek
lateratik euskeratuta

S . Anton'go Katekesia
Euskal - argitalpenak

AGERTUTAKO IDAZTIAK:

- 1 - Phedro'ren Alegiak I
- 2 - Martial'en Ziri-Bertsoak I
- 3 - Phedro'ren Alegiak II
- 4 - Fatima'ko Ama Birjiña ta Umeak
- 5 - Euskal Iztegi Laburra (A)
- 6 - Esopo'ren Alegiak I
- 7 - Agustin Deunaren Eskutitzak I
- 8 - Gurutz - Bidea
- 9 - Phedro'ren Alegiak III

Bilbo'ko

Iriondo ta Alkorta'tar Miren Arantzazu'ri:

Andratxu polita,
euskotar ona,
ara nire gaurko
eske biguna:

Andi zaranean,
gordeizu irri
gozo ori esanaz:
Ene Euskalerril!

ZURIBIDEA

*Neurtitzok zergaitik
zatika emon?
Olermen-dirurik
ez... ta itxaron!*

SARBIDEA

*Irugarren aldiz
nator Phedro'gaz.
Epaitu errukiz,
goikarri ba'naz.*

ARGIBIDEA

Onezkero Phedro'gaz naiko eginda zagozala? Ez uste; itxaron apur baten. Konturatuko zinan, Phedro ez dala edonor. Ez bide zan gorengo idazlea; ezta berengoa bere; ta berak berengotzat artzea ezelan bere gura ez. Gizajoak naikoa jasan Erroma galdu aretan. Oso irakurgarria dogu alde orreatik begiratuta.

Batzutan giza-arrokeriaz eta txikikeriaz etsita dagerkigu (7 ta 12-garren alegiak). Orduko itz-jario merke ta arroak minduta. Beste batzutan, siñes-kaitz (17, 9, 12 ta 10-garren alegiak). Ta oi dan lez, gizonakaz eta gizarteagaz asperturik danak, lan bati sendo lotu ta lagunabarraren ganorabakokeriak eta jardun ezerezak ez ditu atsegin izaten, bere elburura eltzeko eragozpen dira-ta. Arako "quotiens inter homines fui, minus homo redii" gogoratzen dausku (21 ta 17-garren alegiak). Ta Horati'ren "carpe diem" a ziri ta ziri dabilkio barruan ta ezin geldirik egon, azkenengo arnasa ta adimen-arnaria emon artean.

Euskeratzaillak

LENENGO IDAZTIA

FABULA IX

Passer ad leporem consiliator

Ne insultes miseris

Sibi non cavere et aliis consilium dare stultum esse paucis ostendamus versibus.

Oppressum ab aquila et fletus edentem graves leporem obiurgabat passer: "Ubi pernicitas nota", inquit, "illa est? Quid ita cessarunt pedes?" Dum loquitur, ipsum accipiter necopinum rapit questuque vano clamitantem interficit.

Lepus semanimus: "Mortis en solacium! Qui modo securus nostra inridebas mala, simili querela fata deploras tua."

IX-garren ALEGIA

Artaxoria erbia aolkatzen

Gaixoi ez egin iraiñik

Norberarengaitik ardurarik artu ez eta besteak aolkatu-naia astakeri dala, itz-neurtu gitxitan erakutsi bear dogu. Ara gaia:

Arrano-erpetan erbiak zizpuru andiak emoten zituan. Txoarre batek agiraka inotson: "Nun dago zure bikaintasun a? Oin-geldi ointxe?"

Berbaz dagoala mirotz batek bera oarkabe artu ta il egiten dau, alperrik arrenka dala. Erbiak il-agiñean: "Iltze gozoa ba-da au!

Gure gaitzei barrez orainarte ziur be ziur egoten zintzakuzan ori, orra orain zure zoria, arrenkura bardin-bardiñagaz, yatzu tamalgarri!"

FABULA X

Lupus et vulpes iudice simio

Mendaci ne verum quidem dicenti creditur

Quicumque turpi fraude semel innotuit, etiam si verum dicit, amittit fidem. Hoc adtestatur brevis Aesopi fabula.

Lupus arguebat vulpem furti crimine; negabat illa se esse culpae proximam. Tunc iudex inter illos sedit simius. Uterque causam cum perorassent suam, dixisse fertur simius sententiam: "Tu non videris perdidisse, quod petis; te credo subripuisse quod pulchre negas."

X-garren ALEGIA

Otsoa, azeria ta tximiñoa

Guzurtiari, benetan ari dala ere, siñistu ez.

Bein guzurretan lotsa barik jausi danak, benetan ari dala ere, galdu oi dau ustea. Esopo'ren ipuin labur ontan orixe agirian ipiñiko yaku.

Otsoak azeria salatu lapurtzat. Ta azeriak ezetz, etzala lapurra, ezta urrik emon be. Orduan tximiño batek epaitu euren arteko liskarra.

Bakoitzak bere alde itz egin eban ta tximiñoak olantxe erabagi omen: "Ez dot uste diñozun ori gal dozunik. Zeu zara ebazlea, moduz uka arren."

IRUGARREN IDAZTIA

FABULA XVII

Arbores in deorum tutela

Fructu, nom foliis, arborem aestima

Olim, quas vellent esse in tutela sua,
divi legerunt arbores. Quercus Iovi
et myrtus Veneri placuit, Phoebus laurea,
pinus Cybebae, populus celsa Herculi.
Minerva admirans, quare steriles sumerent,
interrogavit. Causam dixit Iuppiter:

“Honorem fructu ne videamur vendere.”

At, mehercules, narrabit quod quis voluerit,
oliva nobis propter fructum est gratior.”

Tunc sic deorum genitor atque hominum sator:

“O nata, merito sapiens dicere omnibus!

Nisi utile est quod facimus, stulta est gloria.”

Nihil agere, quod non prosit, fabella admonet.

XVII-garren ALEGIA

Beñola Jainkoak euren babespean
egon gura eben zugatzak autetsi
ebezan. Artea Jupiter'i izan
yakon gogokoa, arraiña Benus'i.

Ereñotza, barriz, Phebo'ri; piñua
Zibebes'i; lertxun lerdena, ostera,
Herkules'i. Ontaz, Minerba arritua,
mintza arei: Zergaitik elkorrak aukera?

Jupiter'ek esan eutson arrazoia:

“Ospea igalien truk saltzen dogula
uste ez dagien”. “Bakoitzaren naia!
Oliboa, igalez, niretzat daitela.”

Orduan jainkoen aita ta gizonen
egilleak olan berba egin ei zun:
“Ene alabitxi, arrazoiz esaten
dabe guztiak zu zarala jakitun!

Egiten doguna ontsua izan ezik,
alperrekoa da yatorkun izena.”
Ez egin bein bere obari ez danik;
orra or alegi onen ondorena.

LAUGARREN IDAZTIA

FABULA X

De vitiis hominum

Fallit quemquam caecus amor sui

Peras inposuit Iuppiter nobis duas:
propriis repletam vitiis post tergum dedit,
alienis ante pectus suspendit gravem.

Hac re videre nostra mala non possumus;
alii simul delinquant, censores sumus.

X-garren ALEGIA

Gizonen akatsak.

Bide-zorro bi ezarri dauskuz
Jupiter'ek. Bata atzean
ezarri dausku, gure akatsez
beterik. Bular-aurrean
bestea, lagun-urkoenakaz
zaturik. Era ontan
gure akatsak ikusi ezin.
Besteak uts? Gu zelatan.

FABULA XII

Malas esse divitias

Opes irritamenta malorum

Opes invisae merito sunt forti viro,
quia dives arca veram laudem intercipit.

Caelo receptus propter virtutem Hercules
cum gratulantes persalutasset deos,
veniente Pluto, qui Fortunae est filius,
avertit oculos. Causam quaesivit pater.
"Odi", inquit, "illum, quia malis amicus est
simulque obiecto cuncta corrumpit lucro".

XII-garren ALEGIA

Aberaski ta gaizki.

Ondasunak onarentzat,
arrazoiez nazkagarri.
Kutxa betea egizko
aintzaren oztopogari.
Bere adoreagaitik
Herkules zerura jaso
eben. Jainkoen agurrai
erantzun ta antxe Pluto.

Aberaskiak gaizbide.

Zorian seme au. Arek,
barriz, begiak albora.
Beraren aita galdezka.
Semeak erantzun, ara:
"Gaiztoen laguntzaille da,
guzti-guztia galtzen dau
bere irabazkin-eskeintzaz,
ta gorroto dot gizon au."

Pluto (Greziarren mitologian): Su-lezeetako jainkoa, Kronos eta Errea'ren semea, Zeus eta Poseidon'en anaia. Proserpine ostu ta emaztetzat artu eban. Epaille bigundu-eziña omen zan. Su-lezeetako ustezko sarreran gurtu ta hazaroan jainko ongilletzat euki eben.

FABULA XVII

De fortunis hominum

In secundis time, in adversis spera

Cum de fortunis quidam quereretur suis,
Aesopus finxit consolandi gratia:

Vexata saevis navis tempestatibus,
inter vectorum lacrimas et mortis metum,
faciem ad serenam subito ut mutatur dies,
ferri secundis tuta coepit flatibus
nimiaque nautas hilaritate extollere.

Factus periclis tum gubernator sophus:
"Parce gaudere oportet et sensim queri."

Totam aequae vitam miscet dolor et gaudium.

XVII-garren ALEGIA

Gizonen goraberak

Urlia asi zan
bere zoriaz
espatsu. Esopo'k
alaitu guraz:

Izontzi bat ekatx
gogorak jota
joian, barrukoak
ikaratuta.

Erio-bildurrez
negar ta negar.
Onetan eguna
ozkarbitzear.

Asi zan ontzia,
atzeko aizez,

aurrera egiten
itxaropenez.

Ontzi-mutillak be
lar poztu ziran.
Nausia, oitua
arriskueta:

"Neurritz poztu bear
da", asi yaken,
"ta apurka-apurka
eizue auen".

Bizitza onetan,
baten poz, beste
baten min, ibilli
oi gara naste.

BOSTGARREN IDAZTIA

FABULA X

Canis et sus et venator

Omnia fert aetas

Adversus omnes fortis veloces feras
canis cum domino semper fecisset satis,
languere coepit annis ingravantibus.
Aliquando obiectus hispidi pugnae suis
adripuit aurem; sed cariosis dentibus
praedam dimisit. Hic tunc venator dolens
canem obiurgabat. Cui senex contra Lacon:
"Non te destituit animus, sed vires meae.
Quod fuimus lauda, si iam damnas, quod sumus."
Hoc cur, Philete, scripserim, pulchre vides.

X-garren ALEGIA

Txakur sendo bat pizti bizkorren
aurka jaubean lagungarri izan
ta gero aultzen asi zan urteen
zamaz. Bein jardun eban burrukan.
Basurde uletsu bat belarritik
oratu; baiña, agiñak ustel
ta arrapakiña itxi agotik.
Eiztariak a zentzatu, goibel.
Likon zar arek orduan egin
eutson: "Kemenak ez, indarrok uts
egiten dauste. Nazana orain
ezezgarria yatzulako utz?
Era berean, izan nintzana
ere goretsi bear daustazu."
Dan au zergaitik, Philo laztana,
idatzi dodan ondo dakutsu.

GEIGARRIA

FABULA VII

Aesopus et scriptor

De malo scriptore se laudante

Aesopo quidam scripta recitarat mala,
in quis inepte multum se iactaverat.
Scire ergo cupiens quidnam sentiret senex:
“Numquid tibi”, inquit, “visus sum superbior?
Haud vana nobis ingeni fiducia est.”
Confectus ille pessimo volumine:
“Ego”, inquit, “quod te laudas vehementer probo,
namque hoc ab alio numquam continget tibi”.

VII-garren ALEGIA

ESOPO ta IDAZLEA

Bere burua goratzen eban idazlearena

Urliak Esopo'ri idazki txar batzuk
irakurri eutsozan. Idazkiokaitik
lartxo goratu eban ark bere burua.
Zarraren eritxia ezagutu nairik:
“Lar arro iruditu al niaitzu zuri?
Ene adimenean siñistuta nago,
ez alperrik.” Besteak, idazti oso txar
aregaz asperturik, esan eutson: “Bego.
Nik neuk ondo be ondo deritxot zerorren
burua orrenbeste goratu-naiari.
Bestela, bein bere ez yatzu gertatuko
beste inõrengandik lortutea ori.”

Ipuinok irakur—
ala ditut emon.
Euzko idazleren bat
Asarre? Or konpon!

FABULA XII

Asinus ad lyram

Quomodo ingenia saepe calamitate intercidant

Asinus iacentem vidit in prato lyram.
Accessit et temptavit chordas ungula;
sonuere tactae. “Bella res; sed mehercules
male cessit”, inquit, “artis quia sum nescius
Si repperisset aliquis hanc prudentior,
divinis aures oblectasset cantibus.”
Sic saepe ingenia calamitate intercidunt.

XII-garren ALEGIA

ASTOA ta LIRA

Askotan adimen argiak laguntzarik-ezaz galduak

Astoak lira bat ikusi zelaian.
Aren ondoratu ta atzazkalakaz
asi zan ariak jotzen. Lira-ariak
soiñua atara eben ikutuaz.
“Auxe gauz ederra”, esan eban. “Baiña
gaizki atara yat, ez baitakit ongi
jotzen. Ikasia dan batek aurkitu
izan ba'leu lira au, zeñen ederki.
Jaungoikozko soiñuz, gure belarrien
gozagarri, kanta onak atarako
ebazan.” Olantxe alperrik galdu oi
dira, zoritxarrez, buru argi asko

FABULA XXI

Viator et corvus

Verbis saepenumero homines decipi solere

Quidam per agros devium carpens iter
“ave” exaudivit, et moratus paululum,
adesse ut vidit neminem, cepit gradum.
Iterum salutat idem ex occulto sonus.
Voce hospitali confirmatus restitit,
ut, quisquis esset, par officium reciperet.
Cum circumspectans errore haesisset diu
et perdidisset tempus aliquot milium,
ostendit sese corvus et supervolans
“ave” usque ingressit. Tum se lusum intellegens:
“At male tibi sit”, inquit, “ales pessime,
qui festinantis sic detinuisti pedes”.

XXI-garren ALEGIA

Bidaztia ta belea

Gizonak askotan itzetan nastuak

Ba-joian gizon bat ezkutuko bide
batetik soloan zear. Entzun eban
“agur” ta apur baten lotu. Baiña iñor
agertu ez eta aurrera bidean.

Ostera be, lengo otsa ezkututik
agurka. Abots lagun arek eragiña
gelditu egin zan, zana zalakoak
jaso egiantzat saritzat bardiña.

Ingurura adi ta luzaroan ezbai,
bide zati on bat galdu zun. Alako
baten, bela agertu zan ta ekin eutson
“agurka”, gaiñetik egazka luzetxo.

Iruzurra igarri ta onelan egin
eutson: “Ez daizula onik izan, txori
madarikatua, oiñak lotu-azo
bai dautsozuz arin etorren bateri”!

Idazti onetako latera-euskerazko itzen billabidea

(Bigarren bilduman agertzen diran itzak, alde bat itxi doguz)

A

accedo, is, ere, urreratu.
ad... arekiko.
admiror, aris, ari, arritu;
miretsi.
admoneo, es, ere, aolkatu.
adripio, is, ere, oratu.
adsum, ades, adesse, egon.
adtestor, aris, ari, egiztatu.
adversus, ...aurka.
adversus, a, um, arerio;
aurkako; aurretiko, au-
reko.
aeque, bardiñean; bardin,
zuzenkiro.
aestimo, as, are, ontzat ar-
tu; ...tzat artu.
aetas, atis, aldi; adin.
ager, gri, landa, solo, zelai.
ago, is, ere, egin, eragin;
eroan.
ales, itis, egazti; txori.
aliquando, bein; iñoiz.
aliquis, qua, quid, norbait.
amicus, in, lagun.
amor, oris, maitasun.
annus, i, urte.
ante ...aurrean.
aquila, ae, arrano.
arbor, oris, zugatz.
arca, ae, kutxa.

arguo, is, ere, agertu; sa-
latu.
ars, artis, antze.
auris, is, belarri.
ave, agur.
averto, is, ere, kendu;
urrundu.

B

bellus, a, um, egoki; eder,
bitxi.

C

caecus, a, um, itsu.
calamitas, atis, zoritxar,
ezbear.
cantus, us, abesti.
capiro, is, ere, artu.
cariosus, a, um, ustel.
carpo, is, ere, artu, oratu;
ebagi; beztu.
caveo, es, ere, ardura artu;
kontuz ibilli.
cedo, is, ere, alde egin;
...ra jo.
celsus, a, um, garai.
censor, oris, epaille.
cesso, as, are, gelditu.
circumspecto, as, are, ingu-
rura begiratu; so egin.

clamito, as, are, oi u egin;
oiuka ari.
coelum, i, ortze.
conficio, is, ere, bukatu;
aitu.
confirmito, as, are, sendotu.
consiliator, oris, aolkulari.
consolo, as, are, poztu; go-
zatu.
contingo, is, ere, jazo, ger-
tatu.
corrumpo, is, ere, galdu,
ondatu.
corvus, i, bela.
credo, is, ere, siñistu.
crimen, inis, egintzar;
sala-gai.

culpa, ae, erru.
cunctus, a, um, dan-dana.
cupio, is, ere, irrikatu.
cur, zergaitik?
Cybebe, es, Zibebes.

CH

chorda, ae, ari.

D

damno, as, are, gaitzetsi;
txartzat jo.
delinquo, is, ere, oben egin;
gaizki jokatu.
deploro, as, are, tamal ar-
tu, izan.

destituo, is, ere, uts egin.
detineo, es, ere, lotu; gel-
dituerazo.

deus, i, jainko.
deivus, a, um, ezkutu; oke-
rreko.
dies, ei, egun.
diu, luzaro.
dives, itis, aberats.
divinus, a, um, jainkozko.
divitiae, arum, ondasunak.
divus, i, jainko;
divus, a, um, jainkotiar.
dolor, oris, min; atsekabe.
duo, ae, o, bi.

E

edo, is, ere, emon; atara.
en ...ona emen.
error, oris, oker; makur.
ex ...tik.
exaudio, is, ire, entzun.

F

fabella, ae, ipuin.
fabula, ae, alegi.
facies, ei, arpegi; itxura.
fallo, is, ere, iruzur egin.
fatum, i, patu.
fera, ae, pizti.
festino, as, are, arin, iraduz
joan.
fides, ei, uste on; siñismen.
fiducia, ae, uste; ustekida.

filius, ii, seme.
fingo, is, ere, asmatu.
flatus, us, intziri, zizpuru.
folium, ii, orri, ostro.
fortis, e, sendo; bulartsu.
fortuna, ae, zori; alabearra
Fortuna, ae, Zori.
fraus, fraudis, iruzur.
fructus, us, igali.
furtum, i, lapurreta.

G

gaudium, ii, poz.
genitor, oris, sortzaille.
gloria, ae, aintza.
gradus, us, urrats; ibillera.
gratia, ae, esker; ...di g...
...teko asmoz.
gratulor, aris, ari, eskerrak,
zorianak emon.
gratus, a, um, atsegingarri.
gravis, e, larri; astun.
gubernator, oris, lemazain.

H

haereo, es, ere, lotu; itsatsi.
haud, ez; ezta.
Hercules, is, Herkules.
hilaritas, atis, alaitasun; al-
darte on.
hispidus, a, um, uletsu.
honor, oris, ospe.
hospitalis, e, abetaltzaille.

I

iam ...onezkero.
inepte, moldegaizki.
idem, eadem, idem, bardin,
bera.
ingravo, as, are, zamatu;
astundu.
ingero, is, ere, esan; bota.
innotesco, is, ere, nabar-
mendu.
inpono, is, ere, ipiñi; gai-
ñera emon.
inrideo, es, ere, ... ari ba-
rre egin.
insulto, as, are, iraindu.
intellego, is, ere, ulertu.
intercido, is, ere, ebagi;
jausi; suntsitu.
intercipro, is, ere, eragotzi.
interficio, is, ere, il.
invisus, a, um, nazkagarri.
irritamentum, i, zirikagarri,
bultzagarri.
ita, onelan.
iterum, berriz.
iudex, icis, epaikari.

J

Jupiter, Jovis, Jupiter.

L

Lacon, onis, Lakon.
lacrima, ae, malko.

langueo, gues, guere, aul-
du, makaldu.
laudo, as, are, goratu.
laurea, ae, ereñotz.
laus, laudis, goralpen;
aintza.
lego, is, ere, aukeratu.
lepus, oris, erbi.
lucrum, i, irabazkin.
lupus, i, otso.
lusus, a, um, atzipetua.
lyra, ae, jogailu.

M

male, txarto.
malum, i, gaitz; zoritxar.
mendax, acis, guzurti.
metus, us, bildur.
mille, milla.
Minerva, ae, Minerba.
misceo, es, ere, nastatu.
modo, oraintsu.
moror, aris, ari, gelditu.
muto, as, are, aldatu.
multum, asko.
myrtus, i, arrain (landa-
redia).

N

Narro, as, are, esan, edestu.
nata, ae, alaba.
nauta, ae, itsasgizon.
navis, is, itsasontzi.

necopinus, a, um, oarkabe.
nemo, inis, iñor ez.
nescius, a, um, ikasigabeko;
ez jakin.
nimius, a, um, larregizko.
non, ez.
nos, gu.
noster, stra, strum, gure.
notus, a, um, ezagun; agi-
riko.
numquid..., ala?
numquam, iñoiz bere ez.

O

O, ene!
obicio, is, ere, eskeiñi.
obiurgo, as, are, agiraka
egin.
oblecto, as, are, atsegindu,
gozatu.
occultum, i, ezkutu.
oculus, i, begi.
odi, odisse, gorroto izan;
begitan euki.
officium, ii, lanbide.
olim, beñola.
oliva, ae, oliondo.
opes, um, esku, eskuarte.
oportet, ebat, bear izan;
egoki izan.
opprimo, is, ere, zapaldu,
sakatu; estutu.
ostendo, is, ere, erakutsi.

P

par, paris, bardin; antzeko.
 passer, eris, txori; txoarre.
 parce, neurriz.
 pater, tris, aita.
 paucus, a, um, gitxi.
 paululum, pitin bat.
 pectus, oris, bular.
 pera, ae, bide-zorro.
 perdo, is, ere, galdu.
 pernicitas, atis, bizkortasun.
 peroro, as, are, itzez emon;
 izketan jardun.
 persaluto, as, are, agurtu.
 pes, pedis, oin.
 pessimus, a, um, txar-txar;
 txarren.
 Philetus, i, Phileto.
 Phoebus, i, Phebo.
 pinus, i, lerrondo.
 placeo, es, ere, atsegin egin.
 Pluto, onis, Pluto.
 populus, i, lertxun.
 probo, as, are, onartu.
 propter ...gaitik.
 proximus, a, um, urko,
 urren.
 prudens, ntis, zur, jakin.
 pugna, ae, burruka.
 pulchre, ederki, polito.

Q

quare, zergaitik? Zer da'a
 (zala) ta?

quercus, us, arte.
 querela, ae, alaka.
 queror, reris, queri, espaz
 ari.
 questus, us, alaka.
 quia... -lako.
 quicumque, quaecumque,
 quodcumque (n guztia)
 edonor.
 quid, zergaitik?
 quisquis, quaequis, quod-
 quis, edonor dala.
 quomodo, zelan.

R

recipio, is, ere, jaso, artu.
 recito, as, are, esan; oguzi.
 repletus, a, um, beterik.
 repperio, is, ire, aurkitu,
 idoro.
 resto, as, are, geratu, lotu.

S

scriptum, i, idazki.
 saepenumero, askotan.
 saevus, a, um, anker, gogor
 saluto, as, are, agurtu.
 sapiens, tis, jakitun.
 satis, naiko.
 sator, oris, ereille; egiile
 scio, is, ire, jakin.
 scriptor, oris, idazle.
 secundus, a, um, bigarren;
 aldeko.

sedeo, es, ere, jesarri.
 semanimus, a, um, il-urren.
 sentio, is, ire, iritzi, na-
 baitu.
 semper, beti.
 serenus, a, um, bare.
 simius, ii, tximiño.
 solacium, ii, gozagarri.
 sono, as, are, ots egin.
 sonus, us, ots.
 sophus, i, zur; zentzudun.
 spero, as, are, itxaron; us-
 tetan egon.
 sterilis, e, elkor; antzu.
 subito, bat- batean.
 subripio, is, ere, arrapatu;
 kendu.
 sumo, is, ere, artu.
 supervolo, as, are, gain-
 -egazka egin.
 sus, suis, urde; basurde.
 suspendo, is, ere, eskegi.

T

tempestas, atis, ekaitz;
 saşoi.
 tergum, i, bizkar.
 timeo, es, ere, bildurtu;
 bildurra izan.
 totus, a, um, guzti, oso.
 tunc, orduan.
 turpis, e, lotsagarri.
 tutela, ae, babes.
 tutus, a, um, ziur; lasai,
 babesturiko.

U

ungula, ae, atzazkal.
 usque, tai gabe.
 uterque, utraque, utrum-
 que, bata ta bestea;
 bitzuok.
 utilis, e, onurakor.

V

vanus, a, um, uts; aipe-
 rreko.
 vectus, a, um, barruko.
 vehementer, txit; asko.
 velox, ocis, bizkor.
 venator, oris, eiztari.
 vendo, is, ere, saldu.
 Venus, eris, Benus.
 versus, us, neurtitz.
 verum, i, egia.
 verus, a, um, egiazko.
 vexo, as, are, isekatu; as-
 tindu, jorratu.
 viator, oris, bidazti.
 vir, viri, gizon.
 virtus, utis, kemen; ekan-
 du on, onoimen.
 vitium, ii, okerkeri; akats.
 video, es, ere, ikusi.
 volumen, in is, idazti,
 gutun.
 vox, vocis, abots.
 vulpes, is, azeri.

NOTIÑEN

Izenak

Benus
Esopo
Fortuna
Herkules
Jupiter
Minerba
Phebo
Phileto
Pluto
Zibebes

Orrialdeak

11
9-16-18
15
11-15
11-14
11
11
18
15
11

Azal-irudia: Gallastegi'tar Lander'ena.